

Alboan zuri-gorri  
lorak dira erne;  
atz-puntaz bat ebai  
ta or dozu gorde.

Buru makur, ondoren,  
etxera bidean...  
Seme bien gomuta  
kilika muiñean.

### AUSI ADI !

Ausi adi, itxas-ur, ausi!,  
aitz-arteko zilo arrean...  
Ire otsaren zurmur latza,  
nork adirazo dan aiñean?

Aitz-ondoan leun ezarrita  
begira nagokik ementxe...  
Ire gaiñ eta ertz ugari  
dabiitzaz aur, zar eta gazte.

Zoria ontsu, arrantzalea,  
seska luzez ertzean adi;  
baita itxas-koplakaria bere,  
ontzi barruan leun kantari.

Izaro osteko kaira dator  
eder ta ospetsu ontzia...  
Or ete datorkit, itzuliz,  
nik maitatu neban gaztia?

Ausi adi, itxas-ur, ausi!,  
aitz-arteko zilo arrean...  
Baiña estutu begit noizbait  
joanaren esku zuria!

### BIOTZ-AGURRA

#### I

Ego-aizetxo nekatu ezin,  
nora oa onen arin?  
Sasian garrasi,  
loratzen ijuti,  
aur bildur antzeko,  
arnas ugari, egal zurizko,  
zek arabil ain arinto?

#### II

Ez yak atsegin, noski, egoa  
eta ipar aldera oa?  
—Bai, olerkaria;  
bee-alde atsia  
betikoz itxirik,  
ara naioak, biotza pozik,  
zabala ukaldiz etenik.

#### III

Orrela ba'dok, aizetxo maite,  
biotz-agur esku bete  
eroan egik ara,  
ene Erri maitera.  
An daukezak eneak,  
urri'n-oiñazez aurki josiak:  
danai nire gorantziak.